



## HOMOFIARIEN, LESBOFIARIEN ETA TRANSFIARIEN AURKAKO HERRIKO ARGAZKI-TXAPELKETA:

### Argazki bat aniztasunaren alde.

Argazkilaritzaren bidez, LGTBI (lesbiana, gay, trans, bisexual, intersexual) kolektiboaren ikusgaitasuna sustatzea da txapelketaren helburua. Argazkietan sexu-orientazioen eta genero-identitateen aniztasuna agertu behar da, errespetua eta tolerantzia sustatzeko.

Lehiaketaren oinarriak:

- **PARTE HARTZAILEAK:** 12 urte edo gehiago dituzten pertsonak, Amurrio, Artziniega, Aiara, Okondo, Orozko, Urduña edo Laudio udalerriren batean erroldatuta badaude.
- **HELBURUA:** LGTBI pertsonen eguneroko bizitzan dagoen errealitate anitzaren ikusgaitasuna sustatzea, aske bizitzeagatik eta euren sexu-orientazioa edota genero-identitatea agertzeagatik paira dezaketean edozein motatako bazterkeria ekiditeko. Asmoa da sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen arteko erlazioaren inguruko eztabaida piztea. Horrez gain, gizartean aniztasunarekiko eta bizimodu desberdinekiko errespetua bultzatu nahi da.
- **HIZKUNTZA, AURKEZTEKO EPEA ETA FORMATUA:** Argazkiak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahalko dira, 2017ko maiatzaren 17tik ekainaren 17ra, biak barne. **PARTE HARTZAILE BAKOITZEKO HIRUNA ARGAZKI** onartuko dira gehienez eta argazkietan datu hauek agertu beharko dira: Obraren izenburua, egilearen izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa, adina eta udalerrria.
- **EZAUGARRIAK:**
  - Irudiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu ahalko dira, eta **ez da onartuko irudiak digitalki manipulatzeko.**
  - Lehiaketara aurkezten dituen egilearen jabetzakoak izan beharko dira argazkiak.
  - Irudiak jatorrizkoak izan behar dira eta ez da onartuko plagiotzat har daitezkeen edo beste lehiaketa batzuk irabazi dituzten irudiak.
  - Irudiak JPG fitxategi gisa aurkeztu beharko dira, gutxienez, 5 megapixeleko bereizmenarekin.
- Argazkiak aurkezteko, plataforma digital desberdinak erabil daitezke:
  - WhatsApp 618035848
  - Facebook @AniztasunariBai



- <https://www.facebook.com/AniztasunariBai/>
  - Twitter: @AniztasunariBai  
<https://twitter.com/AniztasunariBai>
  - Instagram @AniztasunariBai  
<https://www.instagram.com/aniztasunaribai/>
  - Laudio Udalaren webgunean egongo den esteka ([www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)).
- Hastagh-a: #AniztasunarenAlde

**Txapelketaren egunetan, aipatu diren plataforma digitalen bidez aurkeztutako argazkiak argitaratuko dira.**

- SARIAK:

Hiru kategorია:

- 12 eta 17 urte bitartekoak: sentitu, gozatu eta partekatzeko esperientzia-kutxa bat eta sexualtasunari buruzko liburu sorta.
- 18 eta 29 urte bitartekoak: sentitu, gozatu eta partekatzeko esperientzia-kutxa bat eta sexualtasunari buruzko liburu sorta.
- 30 urtetik gorakoak: sentitu, gozatu eta partekatzeko esperientzia-kutxa bat eta sexualtasunari buruzko liburu sorta.

**Txapelketa irabazten dutenen datu pertsonalak (izen-abizenak, adina eta udalerría) Laudio Udalaren webgunean argitaratuko dira.**

- EPAIMAHAIÁ: Laudio Udaleko Berdintasun Zerbitzuko langileak, sexualtasun gaietan adituak diren profesionalen talde bat eta argazkilaritzako adituen talde bat.
- JABETZA: Laudio Udala izango da irabazi duten argazkien azken jabea erabilpenari, erreproduzioari, hedapenari, banaketari, argitalpenari, eraldaketari nahiz egon litekeen beste edozein ustiapen-eskubideri dagokionez. Txapelketa irabazlerik gabe utzi ahalko da.
- OINARRIAK ONARTZEA: Txapelketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek eta oinarrietan jasotako baldintzak osoki onartzen direla. Antolakuntzak deskalifikatu egingo ditu oinarri hauek betetzen ez dituzten obrak.
- ANTOLATZAILEA: Laudio Udalaren Berdintasun Zerbitzua.
- SARI-BANAKETA: Uztailaren 2an, eguerdiko 12:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo da **sariak banatzeko ekitaldia**. Ekitaldi horretan bertan argitaratuko dira hiru sarien irabazleen izenak. Ekitaldia antolatzeke, beharrezkoa da sarituek bertaratuko direla **konfirmatzea**, eta bertaratzea.